

# Liburutegia



## Aurkibidea

- Sarrera

- Ideia
- Balorezko proposamena
- Merkatuaren segmentazioa
- Funtsezko elkarteak
- Irabazi-iturriak
- Kanalak
- Bezeroekiko harremanak
- Funtzesko baliabideak
- Funtsezko jarduerak
- Kostuen egitura



# *Sarrera*

Gu, Alaitz Ipiña, Anne Miranda, Mainer Peña eta Paula Romero gara, 17 urte ditugu, eta Urbi Institutuko 2. batxilergoko ikasleak gara. Gure proiektua liburutegi berezi batean datza.

Gure denbora librean, etorkizunerako planak egitea, marraztea, lagunekin denbora pasatzea, bidaiatzea, sukaldatzea, dantza egitea, musika entzutea eta abestea dira egitea gehien gustatzen zaizkigunak.

Gure liburutegia, gure beharrak asetzen dituen liburutegia da; bertan kafetegia eta irakasleak daude, eta ordutegi zabala dauka, hau da: liburutegi publikoak baino ordu gehiagoz zabalik dago.


# Gure ideia

Gure *ideia* liburutegi bat da, 24 orduz irekita egongo dena. Kafetegi zerbitzua eta janari makinak ere eskuragarri egongo dira liburutegian. Irakasleak irakasgai eta maila ezberdinetara egokituta egongo dira. Orientazio laguntza eskuragarri egongo da, ikasleak haien estresa eta haien etorkizunari buruz norbaitekin hitz egin ahal izateko.

Talde-lanak egiteko espazioak egongo dira, bazkideek doan erabili ahal izango dute haien tarifen barruan egongo direlako zerbitzu horiek eta beste batzuk, bazkideak ez direnak, ordaindu egin behar izango dute. Liburutegiaren egitura modernoa eta minimalista izango da, kolore neutroak izango ditu.

Jantokian soberan geratzen diren elikagaiak jantoki sozialetara eramango dira, gure erantzukizun soziala areagotzeko. Webgune bat egongo da ikasteko material eta ariketekin deskargatzeko, metodo berritzaileak erabilita.

Azkenik, pertsonen egokitutako tarifa ezberdinak egongo dira, klase kopurua, kafetegiaren kontsumizioak, orientatzailearekin saioak eta talde-lanak egiteko espazioak konbinatuz.



Anne Miranda, Alaitz Ipiña, Mainer Peña eta Paula Romero.  
START INNOVA PROIEKTUA